

Aretxabaleta,  
1994ko apirilak 21

# Aretxabaleta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS  
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.  
ARETXABALETA

## Errentaren gaineako deklarazioa

- 0,7aren kanpaina
- Arlutz saskibaloi txapelketa
- Kontu zaharrak



**Izena:** Feli Abarrategi  
**Ofizioa:** Feli dendakoa  
**Afizioa:** Irakurketa  
**Bizioa:** Bidaiatzea  
**Misioa:** Nire lana egunetik egunera hobetzea

- **Telebistan zer ikusten duzu?**
- Danetatik apur bat. Ez daukat denbora asko ikusteko, baina ikusterakoan danetatik ikusten dut, lehiaketak ezik.
- **Zinera joaten zara?**
- Bai.
- **Eguneko momenturik onena?**
- Gauean, denak ohera joaten direnean.
- **Pertsonarengan zein kualitate baloratzen duzu gehien?**
- Zintzotasuna.
- **Zenbat denbora eramaten duzu dendan?**
- 15 urte.
- **Igartzen da krisia dendan?**
- Igartzen da, ez naiz kexatzen, baina igartzen da.
- **Ze saltzen da gehiago, frakak edo gonak?**
- Denetatik saltzen da. Emakumeek gonak erosten dute, gazteek berriz frakak.
- **Ze kolore eramango da udaberriaren lehengo?**
- Beiza.
- **Ze moda dator udaberri / udarako?**
- Ez dator moda konkretu bat: frakak, bermudak, gona motzak, soinekoak...
- **Seme alaba kopuru ideala?**
- Nik 2 ditut eta konforme nago, baina 3 edukiko banitu 3 esango nuke.
- **Ze lan egiten duzu etxean?**
- Josi eta etxekolanak.
- **Noiz elkartzen zara lagunekin?**
- Noizean behin, ez dut denbora asko edukitzen.
- **Urkulura kotxez joateaz, ze iritzi daukazu?**
- Onena izango litzateke denok oinez joatea eta orduan askoz leku gehiago egongo zen. Baina danok samurrena egiten dugu, kotxea hartu eta bertaraino joan.
- **Etxebizitzetako arazoa nola ikusten duzu?**
- Ez dut oso ondo ikusten. Gazteek ez dute lanik, eta lanik ez badago ez dago dirurik, beraz etxebizitarik ezta.
- **Yugoslavia zenaren egoera?**
- Ez oso ondo. Orain dela hilabete batzuk ematen zuen konpontzen ari zarela, arreglo bat zegoela, baina orain egunetik egunera lehengo egoera berdinerara bueltatzen ari da.
- **Gizonari azkenengo erregalua noiz?**
- Bere urtebetetze-egunean. Kiroletarako zapatila batzuk.
- **Zer gogoratzen duzu ezkondu zinen eguneko?**
- Kriston hotza egiten zuela.
- **Aste Santuetan zer egin duzu?**
- Etxean egin.
- **Jubilatzen zarenean zer egitea gustatuko litzaizuke?**
- Bidaiatu.

## Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur Etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Ixaro Zubillaga eta Agurtzane Elgoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi, K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigrif, Koop. E.  
**Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.

# Zer daukazu esateko eguraldiaren gainean?



**Pauli Guridi**  
( Etxekoandrea )

Aspertuta gaude, hainbeste euri ..., desietan gaude eguzkia ikusteko.



**Ana Hidalgo**  
( Etxekoandrea )

Igelak bihurtu behar dugu, horrenbeste eurirekin. Ona egiteko ordua da. Lau egun on izan genituen eta harrez gero euria eta euria.



**Juanito Akizu**  
( Langilea )

Penagarria dela uste dut, apiril guztia doa horrela. Ez da normala, hotzak garbiketan gaude denok.



**Jose Luis Gomez**  
( Langilea )

Eguraldi tristea eta txarra dela uste dut. Ordua da eguzkia agertzeko.

## KARTAK

Herri-aldizkariak euskara zabaldu eta bultzatzeko daukaten eragina kontutan izanik, joan den martxoan bi urte bete ziren atxabaltar talde euskaldun eta euskalzale bat bildu zenetik. Talde horrek, gaur egun atxabaltarrok aldizkari bihurtu den proiektu bati ekin zion: ARETXAGAZETA. Ez zen batere proiektu maximalista izan, helburutzat ez zuen Euskal Herriko herri aldizkariarik onena eta txukunena izan nahi. Talde haren helburua, ordea, ARETXAGAZETAren bi-

tartez herri-mailan notizia izan daitekeen guztia jakinaraztea izan zen. Zuei dagokizue asmo horiek bete diren ala ez adieraztea.

Bien bitartean, gaurko ARETXAGAZETAren Erredakzio-kontseilua osatzen dugunok beste zerbait ere jakitera eman nahi genizuke. Egun harez geroztik, hain zuzen, aldizkariak lortu duen bazkide kopurua gorantz egin du, baina motel-motel, 240raino helduz.

Nahi izanez gero, zuei ere gutariko bazkide

**Bakarrik 1.500 pezeta-  
ren ordainean urtean...**

bat izan zaitezke. Horretarako, ordainketa sinboliko bat baino ez duzu egin behar. Zure dirutxo horrek, 1.500 pta. urtean, gehiago eta handiago izatera lagunduko digu, gure proiektua errealitate bihurtzera, euskara bera bultzatzera.

Anima zaitez eta anima itzazu zure inguruko guztiak ere bai. Gainera, ale honen "Argazkiarekin jolasean" orria irakurri ezker, ikusiko duzu bazkide zaren horrek sari bikaina duzula zain.

**I. GARRO**  
Aretxagazetako  
zuzendaria




**Aste Santuetako oporretan, bi erakusketa izan ditugu Udaletxean.** Batek baino gehiagok lehenengo erakusketarekin ikara ederra jaso zuen manikiak ikusteko. Beste erakusketa Euskal Herriko Soinu tresnek osatzen zuten.

**Julen Larrinaga intsumisoa atxilotu eta epaiketa izan arte egun oso bat kartzelan igaro zuen.** Atxiloketa bere lantokian izan zen, eta ondoren Martuteneko kartzelara eroan zuten. Hurrengo egunean, Donostiako auzitegian epaiketa egin zioten eta libre gelditu zen. Juleni urte bateko zigorra jausi zaio. Dagoeneko, lau intsumiso atxabaltar epaitu dituzte.



**Gipuzkoako Foru Aldundiak Diruz lagundutako aldizkaria**



**Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**ANGELINES Autozerbitzua**

**Mitarte, 16 Tfnoa: 79 61 42**



**NOVEDADES FELI**

MODAN DAGOEN GUZTIA

**Iparragirre, 4 Tfnoa: 79 21 24 ARETXABALETA**

## Basotxo Jubilatutik Elkartearen Batzar Berezia

Joan zen eguaztenean, Basotxo Jubilatutik Elkarteak, Batzar Orokorra izan zuen arratsaldeko 5,30etan.

Batzar Berezian honako gai hauek aztertu ziren:

- Aurreko Batzar Bereziko aktaren berrespena.

- 1993 urteko aktibitateen memoria.

- 1993 urteko gastu eta sarreren balantzea.

- Junta berriaren aur-

kezpena.

- Eta azkenik bukatzeko galderak eta erantzunak.

Batzarra bukatu ondoren, bokadilo eta ardoa dastatzeko aukera izan zuten bazkideek.

□ Zارايا zineman maiatzaren 1ean, domekan, filme emanaldiak bukatu egingo dira urrirarte. Emango duten azkenengo filmea "Sin testigo" izango da.

□ Tril emakume taldeak eskulana lantzeko ikastaroa antolatu du. Maiatzean hasiko da eta ekainaren 2an, astelehenean bukatu. Mila Akizuk emango du astelehenean, arratsaldeko 3retatik 5etara, Kultur-Etxean. Ikastaroak 500 pztatiko kostua izango du. Izena emateko epea apirilaren 20an bukatuko da. Norbaitek informazio gehiago gura badu edo apuntetako Loramendi Kultur Elkartetik pasa daite-



Botatako eurien eraginez, goraino beteta dago Urkulu

## Urkulu urez gainezka

Aste Santuak ailegatzeko gogo handiaz geunduen, eta aurreko egunetan izandako eguraldi zoragarrien ondorioz egia esateko nehiko itxaropentsu ere bai.

Batek baino gehiagok jai egun horietan mendian edo inguruko ondartzetan pasatzeko prebisioak egi-

nak zituen, baina ordua heldu zenean, euria bihurtu zitzaigun protagonista. Euria, haizea eta hotza neguko eguraldia, ekarri zitzigun Aste Santuak.

Botatako euriaren ondorioz, gaur egun Urkuluko urtegia gainezka da goela ikus dezakegu.

Datu batzuk ematea

ren, Aste Santuetako egun euritsuena egukotxa izan genuen, 23'1 zm kubiko jaso zirela. Euri gutxien egin zuen eguna, barriz, astelehena, 3'9 zm kubiko jaso ziren. Orain, 323'08 zm kubikoz, goraino beteta daukagu Urkuluko urtegia



**Maiatza jaunartzeen hilabetea izaten da.** Hau dela eta, lehenengo jaunartzea hartu behar duten gaztetoak egun haundi hori hel dadin, dagoeneko egunak kontatzen ibiliko dira. Batek baino gehiagok egun horretarako jazteko erropa dotorea ere erositako izango du eta ez nolana hiko erropa gainera. Beraz hilabetebarru, maiatzaren 15ean euskaldun taldearen txanda etorriko da eta 29an erdalduen taldearena.

## Herri Urratserako autobusak

Datorren maiatzaren 8an, urteroko moduan, Senperen Herri Urrats ospatuko da. Hori dela eta, Loramendi Kultur Elkarteak autobusak jarriko ditu.

Autobusek domekan, maiatzaren 8an, goizeko 8etan urtengo dute. Izen ematea, Loramendi Kultur Elkartearen lokalean eta Arlutz tabernan.

Informazio gehiago Loramendi Elkartearen.

## Leintz Udal Euskaltegiko bekak

Aretxabaletako Udal Euskaltegiaren izena eman dutenek beka jasotzeko eskubidea izango dute:

1993-1994 ikasturtean Leintz Udal Euskaltegiaren izena eman duten guztiek dute beka jasotzeko eskubidea.

Euskaltegi honetan

ikasten gelditzen direnek, bertako beka baldintzak betez ez gero, zuzenean jasoko dute.

Leintz Udal Euskaltegiaren izena eman, baina beraientzat maila edo ordutegi egokirik ez zegoelako, beren ikasketak beste euskaltegi-

ren batetan burutu dituztenek ere, beka jasotzeko eskubidea izango dute.

Dirulaguntza hauek jasotzeko, Leintz Udal Euskaltegiak beka emateko baldintzak: asistentzia %90a eta jasoko litzatekeen dirula-

guntza euskaltegiak ematen duen berdina, hau da %80a.

Dirulaguntza hauek jaso ahal izateko eskabideak Aretxabaletako Udaleko Euskara Batzordera 1994ko irailean zehar bidali beharko dira.

**MATIKUA  
TABERNA**


Azatza auzoa  
☎ 79 16 68

**ARETXABALETA**

**IOSU  
URDAITEGIA**

*Mitarte, 1*

**EGUZKIGRAF**



**Aldizkariak  
Inpresok**

**Bulegorako materialak**

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa: 943-791844 - Faxa: 943 - 792941

## Barnetegira doazenei dirulaguntzak

Euskara ikasteko helburuz, 1994 urtean barnetegiren batetara joango diren atxabaltarrei, dirulaguntzak ematea onartu du Aretxabaletako Udalak.

Dirulaguntza hauek lortzeko honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- 1.- Aretxabaletan bizi izatea.
- 2.- Langabetu edo

ikaslea izatea.

3.- Asistentzia, %100ekoa izatea (osasun arazoak, zein besteren bat frogatzeko dagokien agiriak erabili beharko dira. Hauek egokiak direla iritzi ezkeru, hutsak ez dira akats moduan hartuko)

Baldintza hauek betetzen dutenei matrikularen %70a ordainduko die Aretxabaletako

Udalak.

Dirulaguntza hau jasotzeko eskabideak Azaroan aurkeztu beharko dira, Aretxabaletako Udaleko Euskara batzordean..

1993ko Azaroan zein Abenduan Barnetegiren batetan izandako atxabaltarrek ere, dirulaguntza hauek eskatzeko eskubidea izango dute.

## Pala txapelketa

Urtero egiten den Pala txapelketa, apirilaren 24an hasiko da eta San Juanak arte iraungo du. Neurketa guztiak Kiroletxean jokatuko dira, zapatu goizetan eta domeka goizetan. Guztira, egun bi hauetan 8 partidu jokatuko dira.

Txapelketa honetan gomazko pilotak erabiliko dituzte.

Guztira 12 bikotek eman dute izena eta 35 tantutara jokatuko da partidu bakoitza.

Bi talde egingo dira partehartzaile guztien artean eta liga sistema erabiliko da. Ondoren finala eta finalerdiak jokatuko dira.

Beraz, sei bat aste-bukaera iraungo du apirilaren 24an hasiko den Pala txapelketak.

Badakizue, pala txapelketa barri bat herrian eta sari ederrekin gainerra.



"Cienpozueros" kalean, hau da Durana kalearen izen barria. Gure tabernako orman, kaletik pasatzen garenean ikusi dezakegu izena: Atxabaltako biztanle batzuek, Durana kalearen egoera dela eta, izen barria ipini diote.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZAIURUAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

**SAGASTA**  
**ELEKTRIZITATEA**

Elektrogailuak  
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14  
☎ 79 16 10

**IMANOL ARRAZOLA**  
**KLINIKA DENTALA**

Otalora, 18 - 1. D  
☎ 79 93 55

**Atxabaltako Udalak, Egunkariaren akzio bat erosi du miloi erdi ordainduz.**

Akzioa erosteko proposamena joan zen urteko aurrekontuan sartuta egon arren, aurrekontua oso berandu onartu zenez, aurten eman zaie Egunkaria-ren ardura-dunei akzioaren dirua. Akzioa sinatzeko



Sebastian Lizaso bertsolariaren bisita izan genuen. Izan ere, Lizaso Egunkariaren akzioak saltzeko proiektuaren arduradunetarikoa da.

**Trenbide zaharra berreskuratzearen alde**

Leintz Bailarako ia 40 talde eta elkarteak sinatuta (kirol eta kultur arlokoak, ikastetxeak, jubilatuen etxeak, emakume eta gazte elkarteak, merkatarien elkarteak...), Maltzaga Urbina ardatza dela eta IGPetan arrakasta handia izan zuela ikusita,

"trenbide zaharra berreskuratzearen alde oinezko nahiz bizikletantzeko ibilbidea bihurtzeko" txostena kalera-tu zuten.

Txosten hau astelehenean aurkeztu zen, eta bertan sinatzaile moduan Atxabaltako kultur, ikastetxe eta kirol

elkarte daude. Txosten honetan agertzen denez, *"premiazkoak dira, gure bailara estu honetan, eta Euskal Herri osoan zehar, oinez eta bizikletaz ibiltzeko bide egokiak"*.

Guzti hau dela eta, Administrazioak neurri bi hartu beharko lituzkeela adierazten da:

1.- Dauden trenbide zaharrak mantendu edo berreskuratu oinezko eta bizikletazaleentzat.

2.- Errepide berriak planteatzea eta diseinatzeko direnean motorizatu gabeko garraiobideak ere kontutan hartzea.

**IZOTZ TABERNA**

Mitarte, 16  
☎ 79 01 72

**EXPRESS AKEITEGIA**

° Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

**RKLU**

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

**ANDONI ALTUBE**

ELEKTRA INSTALAKUNTZAK

Durana, 36  
☎ 79 10 60





Horrelako irudiak ahalik eta gutxien ikusteko guztion laguntza behar da

## 0'7aren kanpaina

Atxabaltako Hirugarren Munduko taldeak, 0'7a bultzatzeko kanpaina hasi du. 0'7a Nazio Batuek, 1972an herrialderik aberatsenen barne produktu gordinetik, Hirugarren Mundura bideratzeko onartutako portzentaia da.

### Proposamena

Estatu guztiek proposamena onartu arren, praktikan jartzeko orduan, gahenetan ez da

errespetatzen onartutakoa. Gaur egun, lau herrialdek bakarrik beteten dute hitza, eta esaterako Espainaren kasuan, ez da 0'26ra helitzen. Gainera portzentaia hau ez doa proiektu konkretuetara, gobernutik gobernura baizik. Beraz, interes politikoei eragin nabarmena dute laguntza bideratzeko orduan.

Atxabaltako Hirugarren Munduaren alde la-


nean dabiltzanek jakin ez dakite hasi berri duten kanpainak zer nolako arrakasta izango duen, ezta diru portzentaia hori lortzeko balioko duen ere. Dena dela, Atxabalta mailan portzentaia lortuko balitz, aurrera pauso garrantzitsua izango litzatekeela uste dute.

### 0'7aren kanpaina

Egin duten kanpainaren barruan, datorren martizenean Atxabaltako etxe guztietan orrialde bat banatuko dute. Orrialde horretan, batetik Hirugarren Munduari buruzko datu batzuk izango ditugu, eta bestetik 0'7a bultzatzeko sinadura orri bat ere. Beraz Atxabaltar guztioi gure etxean lasai irakurri eta sinatzeko aukera ematen digu Hirugarren Munduaren alde lanean dabilen taldeak.


Etxean lasai sinatzen dugun guztiok, orrialdea Errasti egunkari dendarra, Josune goxotegira edo Hirugarren Munduko taldeak, Zeraia kalean duen lokalera eramatea komenigarria litzateke. Eskatzen duguten mesedea ez da hain handia, eta gure laguntzarekin argazkian agertzen zaigun egoera apur bat hobetzeko balio du. Merezi du.

**...ARETXAGAZETA  
etxean jasotzeaz gain...**

•••••  
  
 MASAILARIAK  
**MASAIK**  
**ZARAIA**  
 MASAIK eta  
 OSTEOPATIA  
 Loramendi 13 - 1-A  
 Tfnoa: 79 71 55  
 •••••

  
 Mitarte, 16  
 ☎ 79 01 72

# Zer egin deklarazioaren aurrean?




Sasoi-sasoiko gaia denez, eta nolabait denon poltsikoan eragina duenez, oraingoa honetan Errentaren gaineko deklarazioa aztertu dugu sakon. Horretarako, herrian gai hau ongi menperatzen duten batzuegana jo dugu, eta beraien iritziak eta aholkuak gustora asko jaso dugu.

Deklarazioa apirilaren 5etik ekainaren 25era bitartean aurkeztu behar da, horrela badagokizu, Gipuzkoako Foru Aldundiak Bergaran horretarako duen bulegoan. Deklarazioak goizeko 8etatik arratsaldeko 2etara aurkeztu daitezke, astelehentik zapatara.

## GALDERAK


- 1.- Desgrabatzeko duzun produktu "izarra"?
- 2.- Zenbat aitortpen egin zenuten iaz sukurtsaletan?
- 3.- Zer aholkatzen duzu datorren aitortpenerako?
- 4.- Aurten egiten ahal duzue aitortpenik sukurtsaletan? Noiztik noiz arte ekar daitezke?
- 5.- Zer egin dezakete jubilatuek euren aitortpena hobetzeko?
- 6.- Zer da kominigarriagoa, Bergaran egin edo sukurtsalean egitea?
- 7.- Ordaintzea suertatzen bazaizu aldi batean edo 2 epetan ordaindu daitezke?

## FERNANDO ORUESAGASTI (Atxabaltako Euskadiko Kutzaren Zuzendaria)



- 1.- Ia aurrezki-etxe guztiek dauzkaten modukoak: Aurrikuspen-Plana (gutxienez 10 urte izan behar duzu dirua ikutu gabe) eta Pentsio-Plana (gutxienez 60 urte arte); Etxebizitza-kontua eta Etxebizitzarako mailegua; Bizitza-aseguruak; Inbertsio-fondoak (ez dute desgrabatzen, baina ez duzu zergatik ordaintzen).
- 2.- 450 inguru egin genituen, eta goranzko joera dauka.
- 3.- Gizate-Asegurantzaren krisia kontutan izanik, jubilaziorako aurrikuspen-plan bat zabaldu. Gazteentzat, etxebizitza erosteko edo bergaitzeko, etxebizitza-kontua ireki.
- 4.- Aurten ere jasoko ditugu aitortpenak apirilaren 5ean hasi eta ekainaren 11 bitartean.
- 5.- Aurrikuspen -eta Pentsio- Planak, eta gaur gaizki joan arren, Inbertsio-Fondoren bat zabaldu.
- 6.- Bergaran eginez gero, eta kobratzea suertatu bazaizu, 7 egunen buruan zure poltsikoan duzu diru hori, eta ohizko aitortpena eginez gero, teoriar datorren urteko urtarrilera arte egon behar duzu zain.
- 7.- Ordaindu beharra baduzu, gutzia alde batean edo bi epetan egin dezakezu: lehen epea ekainaren 25 baino lehen (%60) eta bigarrena, ordea, azaroaren 10 aurretik (%40)

## ROBERTO URRETA (Atxabaltako Kutzaren Zuzendaria)



- 1.- Batez ere Etxebizitza-kontua eta Aurrikuspen-Planak.
- 2.- Guk bertan ez ditugu egiten, baina jaso egin egiten dugu. Ondoren Donostiara eramane eta han betetzen dituzte. Joan den urtean 900 inguru jaso genituen, joera goranzkoa delarik.
- 3.- Onenak, goian esandako bi horiek dira. Etxebizitza-kontuak %15 desgrabatzen du, eta Aurrikuspen-Planari dagokionez, Oinarri Zergagarrien bi kantitate hauetako txikiena murriztu daiteke: a) Lanaren etekinaren %15, edo b) 750.000 pta. Kantitate horren soberak kontuaren %10 murrizten du.
- 4.- Dagoeneko, aitortpenak uzteko epea zabalik dago ekainera arte.
- 5.- Oso atxekipen fiskala txikia dutenez, normalean ezin izaten da ezertxo ere egin.
- 6.- Kobratzeko esperantza baduzu, mekanizatua egitea aholkatzen da (horrela ordainketa berehala egingo dizute), baina ordaintzea tokatzen bazaizu, ohizkoa egin behar da ahalik eta beranduen ordaintzeko.
- 7.- Aldi batean ordaindu daiteke, baina bi epetan ordainduz gero, zure dirutxo hori beranduago arte izango duzu zurekin. Hauek dira epe biak: %60 ekainean eta %40 azaroan.

**AGUSTIN VICENTE**  
(Bergarako Hazienda eta Finantza  
Departamentuko Zuzendari ordea)



Ekonomia eta enpresa zientzietan lizentziatua dagoen atxabaltar honen esanetan, jendeak ez ditu aitortzen irakurtzen, gutxienez atzekaldeak, eta beste paper baten bila joan behar izaten da gaizki betetzen dituelako. Donostiaraino joan beharrean, Haziendak Bergaran duen bulegoan egin behar

dugu atxabaltarrok aitorten mekanizatua, inprimakia edozein estankotan erosi ondoren. Bestela, hor daude zain aurrezki etxeak.

Agustinen ustez tranpak segituan kontrolatzen dira. Dena den, deklarazio bakoitzak 5 urteko epea du goitik behera berriskusteko. Denok jakin dezazuen, etxeko eskriturak eraman behar dira. Ez da zergatik fotokopiarik atera behar, originalekin nahikoa baita. Bukatzeko, kontutan izan Bergarako bulegoa urte osoan zehar zabalik egoten dela: zergak, kontsultak, lizentziak...

Pista bat eman nahi digu atxabaltarro: deklarazioa aurkeztu behar duten senar-emazteak lanean badabiltza, beraientzat interesgarriena %90ean individuala egitea da. Dena den, Bergarako bulegoek simulazio bat ere egin dezakete, horrela modu bietatik onena zein den bertan esango dizute.

## DATU INTERESGARRI BATZUK

✓ Joan zen ekitaldian (1993) Gipuzkoako Foru Aldundira 1296 aitorten heldu ziren Aretxabaletatik. Honek iazkoarekin %4,3ko gorakada adierazten du (1.242 aitorten aurkeztu ziren).

✓ Urte horretan atxabaltarren gatik 15,6 milioi pezeta jaso ziren, hau da, aurrekontuarekiko %66,4ko gorakada izan zuen (9,3 milioi jaso ziren aurrekontuan).

Itzulketak, ordea, 86,1 milioitakoak izan ziren, hau da aurreko urtean baino %2,4 gutxiago (88,3 milioi itzuli ziren)

✓ Honako bide hauetatik heldu ziren Foru Aldundira 1.296 aitorten horiek:

1.094 Bergarako bulegoan

179 Okendoko bulegoan (Donostian), aholkulari, gestore edo finantza-entitate baten bitartez aurkeztuak.

5 Donostiako Antso Jakintsua kaleko bulegoan.

5 Eibarreko bulegoan.

4 Donostiako Prim kaleko bulegoan (Egoitza zentrala).

3 Donostiako Groseko bulegoan.

3 Tolosako bulegoan.

2 Okendo bulegoan (interesatuak eramanda).

1 Beasaineko bulegoan.

Michelle Tait eta Joanne Wrathall-ek 17 urte dituzte, Lancasterrekoak dira eta unibertsitatera joan baino lehenago laneko esperientzia egin behar dute. Lan hau egiteko asmoz, gure artean izan ditugu eta hainbat bitxikeria kontatu dizkigute



Michelle eta Joanne, argazkian agertzen diren neskek, gure artean izan genituen

## Laneko esperientzia egiteko etorri dira Euskal herrira

• Zelan etorri zarete Euskal Herrira?

• Elkartruke baten bidez etorri gara. Ahi- zke-ren bitartez Ingala- terratik Oñatiko familia batzutara 8 neska-mutil etorri gara, eta udan familia horietako neska zein mutilak gure etxee- tara etorriko dira.

• Zergatik aukera- tu duzue hona etor- tzea?

• Guk gure ikaste- txietan gaztelera ikasten dugu, beraz gaztelera lantzeko aukera izan genezakeela ikusita hona etortzeko bidaia antolatuta genuen. Hel- buru bi beteteko gaude hemen; gaztelera lan- tzeko eta laneko espe- rientzia egiteko.

• Zer da laneko es- perientzia?

• Ingalaterran 16 urte egiten dugunean eta Unibertsitatera joan gura baduzu, nahitana- hiez laneko esperientzia egin behar dugu. Lane- ko esperientzia egiteko ikasleok lanpostu bat aukeratzen dugu, gure herrian edo atzerrian aukera dezakegu. Auke- ratu ostean bi astetan zehar toki horretara joan beharra daukagu ber- tako lan giroa ikusi eta ikasteko. Lanpostua guk aukeratzen dugu aurre- rantzean ikasi gura di- tugun ikasketen arabe- ra; adibidez Joannek ka- zetaritza ikasi gura du eta nik inguru giroa.

• Esperientzia hori

non hartzen ari zare- te?

• Teleskon eta Ber- garako Aritz ondón egon gara. Joxebi Ra- mos ere laguntzen ari zaigu eta honez gain ATB, Arrasate press eta Aretxagazetan ere egon gara.

• Zénbateraino la- guntzen du laneko es- perientziak Unibersi- tatera sartzeko or- duan?

• Egia esateko uni- bertsitatera sartzeko nota onak eduki behar dituzu, lan hau gauza sinbolikoa da, derrigo- rrez egin behar dugu baina ordua heltzen de- nean benetan kontutan hartzen dena notak dira.

• Lana egiteaz gain,

zelan pasatzen duzue denbora librean?

• Ingurua ezagutze- ko irteerak egin ditugu. Oñati, Bergara, Arrasa- te, Atxabalta eta Esko- rriatzen egon gara. Gero Gasteiz, Donostia eta Burgosera joateko as- moa daukagu.

• Zer da aurkitu duzuen gauza arraroe- na?

• Lancasterrekin konparatu ezkerro, hau oso desberdina da, bai- na gehien harritu gai- tuena gaueko giroa izan da. Hemen jendea gauez irteten da, gauean taber- netan izugarriko giroa dago, taberna mordo bat dago eta gainera zapa- tian jendez gainezka ikusi ditugu.

Urtero moduan, Arlutzek bere saskibaloitxapelketa antolatu du. Aretxagazetak ez du aukera hau galdu gura, eta hemndik eta txapelketa bukatu arte; jarraipen berezi bat egingo du. Bertan bitxikeriak, anekdotak, sailkapenak... agertuko dira. Beraz badakizue, 15ero, Aretxagazetan Arlutz saskibaloitxapelketa.



Kantxa honetan jokatuko dira txapelketako partidu guztiak

## Arlutz saskibaloitxapelketa

Arlutz tabernak aurturten ere saskibaloitxapelketa antolatu du. Partehartzaile guztiak izena ematerakoan 3000

pzta ordaindu beharko dute. Txapelketa datorren zapatuan, Apirilaren 23an hasiko da eta dagoeneko zortzi taldek

eman dute izena.

Antolatzaileek hainbat arau kaleratu dituzte txapelketan zehar arazorik gerta ez dadin.

Arau horietariko batzuk ondoren datozkigunak dira:

- ▶ Talde bakoitza gehienez hamar jokalarik osatu dezake.
- ▶ Partidu bakoitzeko, talde bakoitzak delegatu bat aurkeztu beharko du, arbitratzeko.
- ▶ Arbitrorik aurkezten ez duen taldea deskalifikatua izan daiteke.
- ▶ Euria egingo balu, partidua suspendituko litzateke.
- ▶ Arbitroaren erabakiak ukaezinak izango dira, baita antolatzailearenak ere.
- ▶ Iztiluak eragiten dituzten talde eta jokariendako zigorrak izango dira.
- ▶ Partidua jarritako orduan agertzen ez den taldeari, 15 minutu itxarongo zaio, ez bada agertzen deskalifikatua.
- ▶ Antolatzaileek ez dute bere gain hartzen gerta daitezkeen gaitzak.

# ARLUTZ TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tfnoa: 79 32 34

**W**B. Yeats poetak esaten

duenez: "Arnas hutsal-ak ziren etortzeaz zeuden urteak, arnasa hutsala joandakoak". Eta bitartean, orainaren errealidade latza; bera baita izatearen ezaugarri bakarra. Argazkiek oraina harrapatzeko aukera ematen digute, denbora engainatuko dugulakoan.

1959. urteko apirilean, Aretxabaletako Udalak eta Herriak mereritako omenaldia eskeini zioten, hainbat urtetan sakristau izandako **Gregorio Gabilondo Amilburu** Jaunari.


1881ean Leintz Gatzagan jaiotakoa bazen ere, gazterik etorri zen Aozaratzara, maixu lanak betetzera. Garai hartan maixuek, beste askok bezala, gorriak ikusten zituzten familia aurrera ateratzeko, eta beharrak bultzatuta,

barbero lanak ere burutu zituen, baita denda txiki bat manejatuta ere.

Aurreko kaleko sakristaua **Francisco Galdos** hil zenean, Aozaratzatik kalera jeitsi zen, eta luzaroan bere lanak bete ere.

Argazkian, omenaldi eguna, eliza sarreran. Aurrekoa, **Gregorio Gabilondo** omendua; bere atzekaldean, kape-la eta guzti On **Angel Garmendia**, Parrokoa; eta bere ezkerrean **Esteban Leanizbarrutia**, Alkatea. Atzerago, **Segundo Urteaga** eta atzerago **Felix Pagaldai**. Nahiz eta argazkian agertu ez, Udaleko beste partaideak ere han ziren; **Miguel Zubizarreta**, **Francisco Garai**, **Policarpo Bengoa**, **Juan Arkauz**, eta **Eugenio Aretxaga**.

Baita apirilean, baina aurten, argazkiko oraina harrapatu nahi izan zuen argazkilaria, **Jus-**



**tino Castro**, ere joan zaigu (G.B.)


P. Milanés-ek dioenez: "iragana ezin dut ukatu, eta etorkizuna noizpait helduko da". Eta Oraina?. Argazkikoak gure iragana, gu

argazkikoen etorkizuna. Orain non?

**I. URRETA**  
**A. ANTZIA**

**LEIBAR**

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABALETA

**... euskarari laguntza ederra emango diozu eta...**

## Zatixo baten zain



J.J. Aretxaga

Hasteko atzetik hasiko naiz, atzetik edo atzekaldetik. Aste Santuan hemendik zehar ibili ziren ziklistak eta horrein artean atxabaltar bat, **Aşier Guenetxea**. Bere ilusioa Mondragoen irabaztea zen, baina ez zuen zorterik euki. Eta anekdotatxoa: bera izan zen farolillo gorria. Kirol berarekin jarraituko dugu, baina gatzetxoagoekin. Ziklistentzako Euskal Liga izan zen apirilaren 4an Mungian. Lasterketa horretan probintzia bakoitzetik 30 txirrindulari klasifiketan dira. Bertan izan ziren **J.M. Elizburu** (bigarren geratu zen), **R. Cabero**, **Z. Urain**, **I. Sastre**, **G. Valgañon** eta **J. A. San Migel**.

Txirrindularitzan gauzak pasatu dira, baina inportanteagoak dira gure herritarrek egin dituzten postu edo 'kargu' aldaketak. **Jon Zuazabeitia** Loramendi Elkarteko langile barria izango da. Hartara, laguntza izango du

hortan dabilen **Jon Iñaki Izarzelaiak**. Loramendik hainbat lan eta arlo betetzen ditu, eta Jonen lana batez be sensibilizazio arloa jorratzea izango da. Sensibilizazioa zer den? Ez jakitea be...

Beste izendapen sonatuak be izan dira inguruan. **Itxaro Zubilaga** Arrasate Press-en hasi da lanean, egun erdiz. Lehendik bertan egun erdiz zebilen **Maria Agirre** barriz, egun osorako hartu dute. Arrasate Press-en badute atxabaltarren beharra... Eta ez Arrasaten Press-en bakarrik. AEDtik umeen ekintzetarako sortu den Txatxilipurdi elkartearen **Ane Miren Guemes** larrinotarra jarri dute idazkari. Hainbeste izendapen eta hainbeste kargu, azkenean Roldanak eta Rubioak be sortuko zaizkigu inguruan.

**Koldo Gastañaga** gaztea Baionara ei doa iturgintza eta berotze teknikak ikasten Deba Garaiko Mankomunitateak sinatutako hitzarmen baten bidez. Baionara fontanero ikasten. Berotze teknikena barriz, auskalo zer den. Beretako loteria izango da igual. Baina benetako loteria atxabaltako kuadrila bati tokatu zaio. Hiru miloi t'erdi tokatu ei zaie. Esan didate izenik jartzen ez badut, zatitxo bat eman-gio didatela.



# LASAGABASTER

## ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55




**Saria: 7.000 pztako materiala erosi dezakezu, Zazpigain liburudendan.**

**BAZKIDEEK  
BAKARRIK IZANGO  
DUTE JOKU BARRI  
HONETAN PARTE  
HARTZEKO AUKERA**

▼ Hamabostero galdera bera egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETAren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.



**Zein da argazkian ageri den  
Atxabaltarra?**

Erantzuna:.....  
Izen-abizenak: .....  
Helbidea:.....  
Tfnoa:.....

## 22

### EGUAKOTXA

• Gaueko 10etan, Zاراia zineman **Taum Taum taldeak**, "Taum Taum show" antzezla-na eskeiniko du.

## 23

### ZAPATUA

• Gaueko 10etan, Zاراia zineman "TODOS A LA CARCEL" filmea.

## 24

### DOMEKA

• Murrukixo eguna.

• Zاراia Mendi taldearekin **infantilen-dako V. martxa** erregulatua.

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Uribarri Ganboa-Durana-Gamarra-Arrazua-Lubiano - Ilarratza-Erentzun-Egileta-Estibalizko Santutegia-Gasteiz-Gamarra-Urbina-Landa-Aretxabaleta.** (95Km)

• Futbol partidua: **U.D.A-Zumaiaiko F.T.**

• Arratsaldeko 4,30etan "POLICIA Y PICO" eta 7etan "TODOS A LA CARCEL" filmeak, Zاراia zine-man.

## 30

### ZAPATUA

• Gaueko 10etan Zاراia zineman "SIN TESTIGOS" filmea.

## 1

### DOMEKA

• Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta-Landa-Urbina-Gamarra-Murgia-Oroko Amabirginaren Santutegia-Zarate-Gopegi-Le gutio-Landa-Aretxabaleta.** (102 Km)

• Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: **Aluitzera.**

• Zاراia Mendi Taldearen urteera: **Altungera.**

• Arratsaldeko 4,30etan eta 7etan, Zاراia zineman "SINTESTIGOS" filmea.

## ARETXAZOKA

### Lana

✓ Zure aulkia hon-datuta baduzu, lasai egon, guk gogortu eta kordelezko ipurdi berria jarriko diogu eta. Dei egin 79 15 96 telefonora.

✓ OHO eta len eta 2. Goi Batxilergo klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 45 97.

### Lana

✓ Edozein mota-tako, lan, txosten, agiri eta abar ordenagailuz pasatzen dugu. Interesatuak deitu 79 12 49 zenbakira eta Agurtzanez galdetu.

✓ Irakasle tituladunak klase partikularrak ematen ditu O.H.Oko 1. mailatik 8. mailararte. Tfnoa: 77 10 72

### Etxebizitza

✓ Pisu bat alokatzen da Atxabaltan. Tfnoa: 79 40 19.

✓ Pisu bat saltzen da Santa Kurtz kaleko 5ean. Hiru logela, egongela, sukaldea, jangela, komuna eta sotoa.

Interesatuak deitu egunez 79 90 62 edo 79 75 91ra eta gaeuz 77 12 29 zenbakira.

### Etxebizitza

✓ Lur azpiko garaje bat saltzen da. Interesatuak 79 86 72 zenbakira deitu.

✓ Garaje bat alokatzen da Andra Mari auzunean. Interesatuak deitu 77 08 48 zenbakira.

**T  
X  
I  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETAKO

**ZARAIA TABERNA**

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA  
ANAIK

**OSKAR**

HARAGITEGIA

Loramendi, 1  
☎ 79 71 69  
ARETXABALETAKO

**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoak: 79 07 34  
79 31 87

**LASA-AGUILERA**

**Aholkularitza**

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26  
ARETXABALETAKO



**HAIZEA  
AKEITEGIA**

Mitarte Kalea, Z/G  
Tfnoa: 79 85 57

**GUREA**

TABERNA-  
JATETXEA

Durana Kalea  
Tfnoa: 79 20 64

**JAUREGI  
OKINDEGIA  
(Panaderia)**

Otalora, 10  
☎ 79 57 47



**MAPFRE**  
Aseguroak

Enrekabarren, 3  
Tfnoa: 77 11 76

**ARETXABALETAKO  
ITURGINTZA**

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABALETAKO

**ZIRT - ZART**

**ESTILISTAK**

**Ordutegi intentsiboa:**

10etatik 6,30ak arte

*Orain, astelehenetik, ostegun arte 25 urte beherakoentzat prezio bereziak daude.*

*Txartela debalde har dezakezue bertan.*

*Prezio interesgarriak!.*

Gorbea Kalea, 2

☎ : 77 09 44

**atxabaltarron aldizkaria  
kalean ikusi ahal izateko  
ezinbesteko kolaborazioa  
eskainiko duzu.  
Euskararen onerako egin  
zaitez bazkide**



**Aretxagazeta Elkarte, Kultur-Elkartea  
ARETXABALETAK  
Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila**